

Anuntxi Arana

IDAZLEA

Mendiko suak, beti bat

I

parraldeko mendiak –hain ederrak, ezta?– aski egoera tristan daude. Pistak eta asfaltoa nonahi; bideetatik kanpoan 4x4 noranahikoek rallyak egiten dituzte eta beren oroigarriak uzten, alimaleko arroiak eta errekek; mazela eta kasko gehienak tipil-pelatuak dira, han hemenka dozena erdiko zuhaitz multzoak, zaharrak denak, beste garaietatik gelditzen diren hondarrak. Soiltzea eta alhagietako gehiegizko bazkatzea aurrera doaz beti, suak larriagotua.

Ecobuage deitzen den lurraren erretze tradizional horrek, batere ekologikorik ez dena bestalde, bortizki jotzen eta kez-tatzen du, batez ere negu bukaerako hego haizeak laguntzen duenean: ahuntzak ere bazkatuko ez lirakeen pendiz malkorrenak kiskaltzen ditu eta higadurak gehien mehatxatzen dituen tokiak biluzten. Ulertzekoa da: zenbat eta lurrazal handiago belarrean ezar, hainbat eta subentzio gehiago abeltzainei eman, *prime à l'herbe* sistema trebeari esker.

Horra nola diru publikoak ahalbi-detzen duen debaldeko funditza.

Irratian entzun dut alhagiak meka-nikoki garbitzen ahal direla bai, eta irtenbide hori garestia delako, Hemen elkar-teak herritarren kontzientzia piztu nahi duela, laguntza publikoen eskaeraren sustatzeko.



GAIZKA IROZ

Araiz lortuko du. Bizkitartean, aurtengo denboraldian berriz ere su eta gar ikusi ditugu mendiak, Garraldako mazelak besteak beste, Aiherrako aldean.

Inguru horietako zaharrak oroit dira beren gazte denboran Garralda parte hori zuhaix-kaz betea ezaguturik. Eta haien ondoko gaz-teek kontatu didate nola aurtengo erreket-a hau bereziki bihurria izan den. Erraustuak izan diren eremuen jabeak ez zuela hori egitea nahi, utziak zituen bazterrak “zikintzen” eta jadanik ote-sasien artean zuhaixka txikiak ernatuak ziren. Futxo! Herriko indar bizek ez zezaketen horrelako bitxikeria ez-produktibista onar. Bilkura bat egin eta hartan erre-zaleek jabe hori goga-tu zuten, amore eman zuen arte. Administrazioako ordezkariak partai-de ziren bilkuran, ontsalaz lurra eta basoa begiratzen dituzten elkarte ofi-zialetako kideak, eta haiek ere su gar-bitzailearen alde.

Eta horra nola subentziorik gabe berriz oihantzen hasia zen txoko bat ketan joan den.

Delako balentriaren protagonistak nor izan diren kontatu didate. Izenak nahi? Bai baina iritzi leiho honetan ez gara haizu 2.500 karakter baino gehia-go sartzera, bestela maketistak arranguraten dira. Ui, ui, dagoeneko 2.490etan nago. Ez adiorik, beste aldi bat arte. ■



Aurtengo denboraldian
berriz ere su eta gar ikusi
ditugu mendiak, Garraldako
mazelak besteak beste,
Aiherrako aldean



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Korrika



Ibili da mundua munduaren barnean munduz inguratua. Ni neu, Urrunatik Hendaia-rako bidean gaindi. Kamino Berritik Pausotik barrena kotxez azpiegitura. Txalapartaz oratuta-ko bidean. Zubi zaharrean festa. Egun osoan. Bertako elkarteek hornitutako janariak elkargune. Mugarik gabe, hiru belaunaldi batera. Karrantzatik hasita, Karlos Santes-tebanen ama eta alabaren arrastotik. Iruñeko bukaerako mezua, Xabier eta Miren Amurizaren ahotsez entzuna dut irratiz euripean, omen emana. Eta irрати беретик entzun diot Denis Itxaso Donostiako hautetsiari, hura igarotzean begi-rale zela korrikalarietako batek iraina bota diola. Etxera

egin omen du harrituta eta penatuta, ez du euskalgintzaren politizazioa gustu-ko. Ez omen dira nahasi behar hizkun-

tza eta politika. Eta ni horrek harritu nau, ogibidea politi-kan duen baten ahotik entzuteak hain zuzen. Edozein dela ere jardun publikoa, palkotik begira ari denak jakin beharko luke ez dela begirale arrunta, talaiak markatzen duela eta txalotua izatea beti ez dela posible. Soldatan duela arriskua alegia. Palkoak ematen diola bera iraindua izatearen aukera eta biharamunean nik horren berri izatea. Ez du txalaparta aipatu, ez zuen haren hotsa entzungo, ez da bere palkorai-no iritsi. Nik ere ez dut haren ttuntunkuna entzun bere irratiz. Leku ezberdinetik jarraitu dugu Korrika. ■